



## **8. MINTEGIA. Sukar sindromea**

Sukarra, pediatrian, kontsulta arrazoi oso ohikoa da. Haurren sukar-sindrome gehienak honela sailka daitezke:

- Iraupen laburreko sukarra, infekzioaren kokapenetik eratorritako zeinu eta sintomekin batera (fokua).
- Fokurik gabeko sukarra: non anamnesiak eta miaketa fisikoak ez duten lortzen kausa bat zehaztea. Ohikoa 2 urtetik beherako haurretan
- Jatorri ezezaguneko sukarra: 14 egun baino gehiagoko eguneroko sukarra, etiologia argirik gabea, nahiz eta anamnesia, miaketa fisikoa eta laborategiko ohiko probak egin, edo gutxienez astebeteko ebaluazio xehatuaren ondoren.

Pediatriako sukar-sindromearen barruan, kausarik ohikoena infekziosoa da eta horren barruan birusengatiko infekzioak. Baina batzuetan sukarra bakterioengatiko infekzio larri baten seinale bakarra izan daiteke. Jatorri ezezaguneko sukarrari dagokionez, kausarik ohikoena infekziosoa izaten jarraitzen du, baina beste gaixotasun sistemiko bat (inflamatorioa, neoplasia gaiztoak edo beste batzuk) baztertzera behartzen du.

Fokurik gabeko sukarraren barruan, garrantzitsua da paziente hauen hurbilketa diagnostiko- terapeutikoa ezagutzea, bakterioengatiko infekzio bat pairatzeko arrisku gehien dutenak identifikatzeko.

### **Gaiaren edukia:**

1. Kontzeptuak: sukarra, fokurik gabeko sukarra, ezkutuko bakteriemia, larria izan daitekeen bakterioengatiko infekzioa, bakterioengatiko infekzio inbaditzailea, jatorri ezezaguneko sukarra.
2. Fokurik gabeko sukarra duten pazienteen etiologiarik ohikoena eta adin-talde desberdinen araberakoa.
3. Itxuraren, txertaketaren, adinaren, sukar-mailaren eta fokalitatearen garrantzia.
4. Azterketa osagarriak, indikazioak eta beraien interpretazioa.

**PEDIATRIA SAILA**  
**DEPARTAMENTO DE PEDIATRIA**



5. Fokurik gabeko sukarra duen pazientearean hurbilketa diagnostikoa, adin-talde desberdinen arabera:
  - a. 21 egun baino gutxiago
  - b. 22-60 egun bitartean
  - c. 60 egun – 24 hilabete bitartean
6. Maneiu terapeutikoa.
7. Jatorri ezezaguneko sukarra

### **Bibliografia**

- Marcdante, K.J, Kliegman, R.M (Eds.) (2020) *Nelson. Pediatría Esencial* (9ª edición). Elsevier
- Sociedad Española de Urgencias de Pediatría (SEUP) (2024) Protocolo de actuación en lactante febril (4ª edición). Recuperado de [https://seup.org/wp-content/uploads/2025/07/11\\_Lactante\\_febril\\_4ed.pdf](https://seup.org/wp-content/uploads/2025/07/11_Lactante_febril_4ed.pdf)